

Aisian eta hostalaritzan eta inklusibitatean adituak garen gazteak gara, bi alderdi hauek profesionaltasunez uztartu nahi dituztenak. Horregatik, berain diskotekak eta tabernak eraldatu eta inklusiboago bihurtu nahi dituztenei zerbitzu ezberdinak eskeintzen dizkiegu. Beraz, diskoteka eta tabernak inklusioboak diseinatzen ditugun enpresa bat gara. Baina ez hori bakarrik, inklusibitatearen esparruan laguntza, orientazioa eta formakuntza behar duten taberna/diskotekei ere zerbitzuak eskeintzen dizkiegu. Beraz, oso zerbitzu zehatza eta pertsonalizatua eskeintzen dugu.

Diversi Clubek tabernak eta diskotekak espazio seguru eta inklusiboan bihurtzeko erronka du, edonor errespetuzko eta konfiantzazko giro erosoan goza dezan. Hau da, edonork musikaz, dantzaz eta dibertimenduaz gozatzeko aukera izango duten entretenimendu-espazioak sortzea bilatzen dugu, beren beharretara egokitutako atmosfera batean, inklusioa, errespetuzkoa eta oztoporik gabeko gaueko aisialdiaz gozatzeko askatasuna sustatuz. Aldi berean, topaleku izango diren diskoteka eta tabernak diseinatu nahi ditugu, non guztiek, esperientziak partekatze, lagunak egiteko eta gau zirraragarri eta gogoangarri bat bizitzeko aukera izango duten. Gure bezero guztientzat ingurune egokitu, seguru eta eroso eskaintzeko konpromisoa hartzen dugu, teknologia eta diseinu inklusiboa erabiliz, erabateko irisgarritasuna bermatzeko. Beraz, Diversi Clubek planteatzen duen diskoteka zein taberna bat, ez dator bat ohiko diskoteka batekin, legezkotasunetik haratago doan erabateko irisgarritasuna bermatzeko diseinatuta baitago, oztopo fisiko eta sensorialak kenduz. Horren barruan sartzen dira sarrera eta irteera zabalak, arrapalak, bainugela egokituak eta gurpil-aukien mugikortasuna errazten duen diseinua. Gainera, teknologiak ere baditu, hala nola soinu-sistema doigarriak eta argi bereziak entzumen- edo ikusmen-urritasunak dituzten pertsonentzat. Langileak arreta inklusiboan trebatuta daude, eta giroak integrazioa eta errespetua sustatzen ditu, aisialdiko esperientzia dibertigarria eta segurua eskainiz guztientzat, muga fisikoak alde batera utzita.

Deseinatuko ditugun espazioen ezaugarriak hauek dira.

- Irisgarritasuna: Espazio guztiak diseinatuta egongo dira oztoporik gabeko sarbidea bermatzeko. Adibidez: arrapalak, igogailuak, bainugela egokituak, atsedenleku irisgarriak, dantzaleku zabalak eta oztopo fisikorik sortzen ez dituztenak.
- Teknologia inklusiboa: Entzumen- edo ikusmen-urritasunak dituzten pertsonentzako soinu-sistemak eta argi doigarriak ezartzea. Halaber, ikusizko informazioa duten pantailak eta azpitituluak erabiliko dira entzumen-zailtasunak dituzten ekitaldietarako.
- Langile gaituak: Langileak desgaitasun fisikoa duten pertsonen arreta ematen trebatuta egongo dira, aparteko zerbitzu-esperientzia errespetuzkoa ziurtatuz.
- Giro seguru eta abegikorra: Guztiontzako elkarrenganako errespetua, gizarteratzea eta dibertsioa sustatzen dituen giro inklusiboa sortuko dugu. Parte-hartze aktiboa eta gozamen kolektiboa sustatzeko jarduerak eta ekitaldiak eskainiko dira.
- Kulturarako eta aisialdirako sarbidea: Musikaz eta dantzaz gain, dantzalekuak integrazio-jarduerak eskaini ahal izango ditu, hala nola dantza egokituko tailerrak, musika-eskolak edo inklusioari buruzko sentsibilizazio- eta hezkuntza-saioak.

- Diseinua eta dekorazioa: Espazio zabalak, erosoak eta modernoak, dekorazio berritzailearekin, mugikortasuna eta gozamina errazteko, xehetasun fisiko guztiak zainduz, esperientzia bakarra eta ahaztezina izan dadin.
edozein direla ere.